



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2016ko maiatzaren 6a

63. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

—Foru Lege proposamena, pentsioetarako osagarri baterako neurriei eta osagarri hori bermatuko duen pentsio-, babes- eta gizarte segurantzako sistema bereki bat sortzeari buruzkoa. Miguel Ángel Sangalo Grijalbo jaunak buru duen batzorde sustatzaile batek aurkeztu du. Izapidetzeko onartzea (3. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da fibromialgia eta neke kronikoaren sindromea dela-eta osasun arloko jarduketa-protokoloa aktiba dezan. Unión del Pueblo Navarro, Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa, Podemos-Ahal Dugu eta Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak eta Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkeztu dute (4. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Ermitagañako Ikastetxe Publikoan Ingeleseztarako Programako bi lerroak mantentzeko 2016-2017 ikasturtean. Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeak eta Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteak aurkeztu dute (5. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak babestu egiten ditu Bardeako tiro-poligono militarra desegitea defendatzeko eta exijitzeko ekimen eta mobilizazio guztiak. Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du (7. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da aintzat har eta abian jar dezan “Helburua: batere lan istripurik ez” izeneko plan bat. Carlos Couso Chamarro jaunak aurkeztu du (8. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zenbait ekintza egin dituzten gizarte-zerbitzuen kalitatea hobetzeko. Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkeztu du (10. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Hezkuntza Departamentua premiatzen da Haur Hezkuntzako lehen mailako bigarren unitate bat ezar dezan berehala Tuterako Monte San Julián Ikastetxe Publikoan. Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeak eta Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteak aurkeztu dute (11. or.).

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua eta Ebroko Konfederazio Hidrografikoa premiatzen dira eman beharreko baimenak eman ditzaten eta Ebro ibaiaren ibilgua garbitu dezaten. Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Batzordean izapidetzea (12. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak arbuiatzen baititu apirilaren 28ko istiluetan NUPeko errektorearen aurka izandako irainak. Eledunen Batzarrak onetsia (12. or.).

**F SAILA:****Galderak:**

- Galdera, lanpostu-eskaintza publikoetan herritarren hizkuntza eskubideak bermatze aldera ezarri beharreko irizpideei buruzkoa. Dabid Anaut Peña jaunak egin du (13. or.).
- Galdera, Echauri Forestal-en finkaren kudeaketa planari buruzkoa. Rubén Velasco Fraile jaunak egin du (14. or.).
- Galdera, ikasleek Nafarroako Unibertsitate Publikoan apirilaren 28an egindako mobilizazio baketsuaren aurrean Foruzaingoak eginiko jarduketari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (14. or.).
- Galdera, NUPen 2016ko apirilaren 28an gertatutakoari buruzkoa. Carlos García Adanero jaunak egin du (15. or.).
- Galdera, indarrean diren udalez gaundiko plan sektorialeki buruzkoa. Dabid Anaut Peña jaunak egin du (15. or.).
- Galdera, Bideko Ama Birjina Ospitaleko Pediatriako Zainketa Intentsiboen Unitateari buruzkoa. Begoña Ganuza Bernaola andreak egin du (16. or.).
- Galdera, Nafarroako Ingelesezi Ikasteko Programaren diagnostikorako azterlan soziologikoaren kostuari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (17. or.).
- Galdera, Cascanteko osasun etxeari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (17. or.).
- Galdera, atzerriko hizkuntzako hamabi ordu baino gehiago ematen dituzten Bigarren Hezkuntzako ikasle txeei buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (18. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak departamentu bakoitzean dituen aztermahaien eta foroen kopuruari buruzkoa. Ana San Martín Aniz andreak egin du (19. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak departamentu bakoitzean ezarri dituen aztermahaien eta foroen kostuari buruzkoa. Ana San Martín Aniz andreak egin du (19. or.).
- Galdera, Fiteroko monasterioan 2016an egin beharreko jarduketei buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (20. or.).
- Galdera, Tuterako Magdalena elizan 2016an egin beharreko jarduketei buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (20. or.).
- Galdera, urtarrilean PFEZaren bidezko diru-bilketa igo izanari buruzkoa. Galdera erretiratzea (21. or.).

**G SAILA:****Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Arauek, Nafarroako Parlamentuak izendatzekoak diren Nafarroako Kutxa Fundazioaren Patronatuko hiru kideak hautatzeari buruzkoak (22. or.).
- Lantaldea, gure gizarteko mugikortasun-beharrizanak eta, bereziki, Nafarroako garraio-beharrizanak aztertzeak. Barne-funtzionamendurako arauak aldatzea (24. or.).

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

**Foru Lege proposamena, pentsioetarako osagarri baterako neurriei eta osagarri hori bermatuko duen pentsio-, babes- eta gizarte segurantzako sistema bereki bat sortzeari buruzkoa**

*IZAPIDETZEKO ONARTZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 8an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeztzeari buruzko Lege Organikoaren 19.2 artikulua aitortzen duen legegintzako herri-ekimena erabiliz eta martxoaren 25eko 3/1985 Foru Legearen babesean, pentsioetarako osagarri baterako neurriei eta osagarri hori bermatuko duen pentsio-, babes- eta gizarte segurantzako sistema bereki bat sortzeari buruzko Foru Lege proposamena aurkeztu du Nafarroako Parlamentuan batzorde sustatzaile batek, zeinaren ordezkaria Miguel Ángel Sangalo Grijalbo jauna baita.

Legebiltzarreko Zerbitzu Juridikoek txosten bat egin dute ekimen horri buruz, eta Nafarroako Gobernuak bere iritzia eman du.

Hori horrela, aipatu foru legearen 5. eta 7. artikuluekin eta Erregelamenduaren 149.1 artikuluan xedatutakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona ERABAKIA:

1. Izapidetzeko onartzea pentsioetarako osagarri baterako neurriei eta osagarri hori bermatuko duen pentsio-, babes- eta gizarte segurantzako sistema bereki bat sortzeari buruzko Foru Lege proposamena, Miguel Ángel Sangalo Grijalbo jauna buru duen batzorde sustatzaile batek egina.

2. Agintzea erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

Iruñean, 2016ko otsailaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

---

---

**E saila:**  
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da fibromialgia eta neke kronikoaren sindromea dela-eta osasun arloko jarduketa-protokoloa aktiba dezan.**

*UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO, GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA, PODEMOS-AHAL DUGU ETA NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA PARLAMENTU-TALDEEK ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DUTE*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Unión del Pueblo Navarro, Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa, Podemos-Ahal Dugu eta Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeek eta Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita fibromialgia eta neke kronikoaren sindromea dela-eta osasun arloko jarduketa-protokoloa aktiba dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**MOZIOAREN TESTUA**

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeen eledunek, legebiltzar honen Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkezten dute, 2016ko maiatzaren 12ko Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Gibelera hirarik gabe baina borrokatze- eta gainditze-borondatez begiraturaz, fibromialgia eta neke kronikoaren sindromea daukaten gaixoak ikusten ditugu, borrokatu direnak eta gaur egun borrokatzen jarraitzen dutenak beren duintasun-espazioa aurkitzeko kasurik gehienetan espazio hori oraindik ere ukatzen dien gizarte batean.

Osasunaren Mundu Erakundearen aitortpena duten patologia horiek biztanleriaren ehuneko hirutik laura bitarteko kopuru bati eragiten diote. Horietatik, % 90 emakumeak dira; hortaz, generogaixotasunak direla esan dezakegu.

Gaur egun bizirik dirauten estereotipo matxistak ezartzeak atzerapen bat ekarri du, generorik bereizten ez duten gaixotasunen diskriminazioaz gain, ikerkuntzari, diagnostikoari eta tratamenduari dagokienez.

Horri gehitzen bazaio lan-arloko lege berriek erraztu egiten dutela patologia horiek dituzten emakumeak kaleratzea, horrek dituen ondorio ekonomikoekin, emaitza da gertuago daudela ahulezia- eta bazterketa-egoera batetik.

Rolak aldatzeke dauzkagunez gero, ez da lorzen gaixoaren eta haren mugapenen errealitatean egin beharrekoak diren aldaketak egitea.

Gainera, gaixorik gehienek arazo handiak aurkitzen dituzte lan-merkatuan irauteko, ez dagoelako politikarik denborak eta jarduerak norberaren errealitatera egokitzea ahalbidetzen duenik. Horren guztiaren ondorioz, handiegia da menpekotasun ekonomikoa eta soziala, eta horrek balio-gabetasun-sentimendua eta zama sozio-familiarra izateari buruzkoa ekartzen du.

Honako hauek exijitu beharra dago:

1. Emakume horien mantentze aktibo eta etikoa ahalbidetuko duten estrategiak.

2. Patologia horiek urgentziaz barematzea, horiei duintasuna emate aldera.

3. Patologia horien profilari eta zailtasunei buruzko azterlan bat, genero-ikuspegiarekin egina; izan ere, Frida-Nafarroako Fibromialgia eta

Neke Kronikoaren Elkarreak ezgaitasun-prozesuen joan-etorri latz eta garestian ikusten du, inolako azterlan teknikorik egin gabe, gizonezkoei judizialki onartutako ezgaitasunen portzentajea emakumei onartutakoena halako hiru dela, eta hor berriro ere ikusten ahal da genero-diskriminazioa.

4. Patologia horien egoera erreala ezagutzea eta genero-diskriminaziorik ez daukaten beste gaixotasun batzuen aldean daukaten berdintasunik eza eta problematika konpontzea.

5. Bizi-kalitatea hobetzea esparru ezberdinetan: pertsonala, lana, familia, gizartea eta abar.

6. Emakumeen osasun integrala sustatzea haien bizitza osoan zehar.

7. Enplegu-politikak patologia horietara egokitztea.

8. Gaixotasun horiek beste batzuk bezala barematzea, mendekotasun-errealitatek abiatuta, bai ezintasunei, bai ezgaitasunei begira.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Osasun arloko jarduketa-protokoloa aktiba dezan.

2. Gaixotasun horien arloko ikerkuntza, sentsibilizazioa eta prestakuntza berariazkoa areagotzea osasun arloko langileen nahiz elkarteko langileen artean.

3. Gaixotasun horiek dituzten langileentzako zerbitzu, aholku eta laguntza lerroak taxutzea.

4. Gaixotasun kroniko horiek gaixotasun ezgaitzaile gisa hartuak izatea.

5. Gaixotasun horiek minusbaliotasunen barruan –ezgaitasunak– ebalua daitezen, eta lanpostuak gaixo bakoitzaren beharrietara egokituak egon daitezen.

Iruñean, 2016ko apirilaren 19an

Foru parlamentariak: Begoña Ganuza Bernaola, Koldo Martínez Urionabarrenetxea, Miren Aranoa Astigarraga, Mikel Buil García, Guzmán Garmendia Santos eta Marisa de Simón Caballero

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Ermitagañako Ikastetxe Publikoan Ingelesez Ikasteko Programako bi lerroak mantentzen dituzan 2016-2017 ikasturtean.**

### *UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK ETA NAFARROAKO ALDERDI POPULARREKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DUTE*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeak eta Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Ermitagañako Ikastetxe Publikoan Ingelesez Ikasteko Programako bi lerroak mantentzen dituzan 2016-2017 ikasturtean.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Hezkuntza Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkezten dute Hezkuntza Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita Ermitagaña ikastetxe publikoan Ingelesez Ikasteko Programako bi lerroak mantentzen 2016-2017 ikasturtean.

Orain dela hilabete gutxi batzuk Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak iragarri zuen Ingelesez Ikasteko Programako bigarren lerroa itxiko zela Ermitagaña ikastetxe publikoan. Erabaki horrek eztabaida handia eragin zuen ikastetxe horretako ikasleen gurasoen artean. Izan ere, salatu zuten, aurrematrikula garaian behar beste eskabide erregistratu ziren Ingelesez Ikasteko Programako bi lerro eskainiei eusteko eta, gainera, ez ziren kontuan hartu ezta bigarren edo hirugarren aukera gisa Ermitagaña ikastetxe publikoan aipatzen zituzten eskabideak ere.

Gogorarazi behar da, 2016-2017 ikasturterako aurrematrikula garaia zela eta, ikastetxe horrek berrogeita hamar ikaspostu eskaini zituela, guztira, Ingelesez Ikasteko Programako bere bi lerroetan, aurreko urteetan bezala. Aurrematrikula garaia amaitu eta gero, Ermitagaña ikastetxe publikoak hogeita sei eskabide erregistratu zituen lehenengo aukera gisa. Nahikoak, kontuan hartuta ikasleen gehieneko kopurua hogeita bost dela lerro bakoitzeko.

Hala eta guztiz ere, Hezkuntza Departamentuak eskatu zuen zozketa bat egitea, puntuazio bera zeukatzen bost ikasleetako bat ikasposturik gabe uzteko eta, horrela, guztizko ikasle kopurua hogeita bostekoa izateko. Alabaina, Nafarroako beste ikastetxe batzuek beren bi lerroei eutsi diete, nahiz eta bigarren aukera gisa izena eman duten ikasleen kopurua hogeita zazpi izan.

Ermitagaña ikastetxe publikoko guraso-elkartek bere txostenean salatu duen bezala, "Hezkuntza Departamentuaren jokabide horrek urratu egiten du gurasoek seme-alabentzako ikastetxea hautatzeko daukaten eskubidea, batez ere kontuan hartuta familiei hasieratik eman zaiela aukera berrogeita hamar ikaspostu eskainietako bat lor-

tzeko eta hain erabaki drastikoa hartu dela matrikulazio prozesua amaitu arte itxaron ere egin gabe."

Egoera hori izanda, Ermitagaña ikastetxe publikoko gurasoen elkarteak kexa bat bidali zion Nafarroako Arartekoari, aurretik aipatu diren zirkunstantzien berri emateko. Erakunde hori harremanetan jarri zen Hezkuntza Departamentuarekin, gaiari buruzko informazioa eskatze aldera. Kasua aztertu eta baloratu ondoren, idazkia bidali zuen Q16/137 espedienteari lotutako ebazpenarekin batera, eta bertan adierazi zuen Hezkuntza Departamentuari gomendatzen ziola "departamentu horrek hasieran ezarri zituen ikaspostuen eta hezkuntza-unitateen kopuruari eusteko, Ermitagaña ikastetxe publikoan 2016-2017 ikasturterako egin zuen plangintzarekin berarekin bat etorri."

Idazkian Nafarroako Arartekoak adierazi du oro har aitortzen dela ikaspostu-esleipenari buruzko plangintza-erabakiek zuzenean eragiten dietela familiek, hautatzeko askatasunaz baliatuta, ikastetxeak eta hizkuntza-ereduak aukeratzeko orduan matrikulazioari buruz hartzen dituzten erabakiei. Era berean, esan du "herritarrek zilegitasunez espero dutela Administrazioak heldu egingen diela, aurreinskripzio-prozesua amaitu ondoren, bere hezkuntza-eskaintzari eta bere plangintzaren arabera alde aurretik ikastetxe bakoitzari esleitutako ikaspostu kopuruari."

Apirilaren 22an, jadanik Nafarroako Arartekoaren erabakiaren berri izan ondoren, Ermitagaña ikastetxe publikoko gurasoen elkarteak lehendakariak agerraldia egin zuen Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordean, aipatu den egoera hori azaltze aldera. Haren azalpen gehientsuenak ondo hartu eta babestu egin zituzten Legebiltzarrean dauden parlamentu-taldeek.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du mantentzen 2016-2017 ikasturtean, Ermitagaña ikastetxe publikoan Ingelesez Ikasteko Programako bigarren lerroa.

Iruñean, 2016ko apirilaren 25ean

Foru parlamentariak: Alberto Catalán Higuera eta Javier García Jiménez

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak babestu egiten ditu Bardeako tiro-poligono militarra desegitea defendatzeko eta exijitzeko ekimen eta mobilizazio guztiak.**

### *IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak babestu egiten baititu Bardeako tiro-poligono militarra desegitea defendatzeko eta exijitzeko ekimen eta mobilizazio guztiak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **MOZIOAREN TESTUA**

Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozioa aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Bardeak 42.500 hektareako azalera du. Garrantzi biologiko apartekoa duen naturgune bat da, eta ingurumenaren arloko maila altueneko babes-figura pean dago, natur parke bat eta munduko biosfera-erreserba bat baita. Biztanlentsitate txikia duen gunea da: hemeretzi udal, bi haran eta monasterio bat daude. Guztiak ere landa-eremuko biztanleguneak dira, zeinetatik handiena Tuteran baita, 30.000 biztanlerekin.

Hain maila altuko ingurumen-babesa badu ere, Errege Bardean dago, 1951tik, NATOk Europan duen tiro- eta bonbardaketa-poligonorik handiena. Espainiako armadak eta NATOk Europan duten aireko tiro-eremu bakarra da. Biztanleria behartuta dago NATOren praktiketarako tiro- eta bonbardaketa-eremuak hartzen dituen 2.222 hektareekin bizitzera. Tiro-eremuak bere inguru osoan 50 kilometro baino gehiagoko erradioa duen aire-espazio guztia erabiltzen du. Instalazio hori sortu zen Bardeako Batzarrak eta Espainiako Gobernuak 1951n sinatu zuten akordio baten ondorioz, zeina 1976an 25 urte gehiagorako berritu baitzen.

Bardea inguruko herriei ez zaie inoiz zuzenean galdetu ea tiro- eta bonbardaketa-poligono hori nahi zuten. Erabaki hori Gobernu frankistak hartu zuen, eta herritar horiek tirogune horrekin bizi behar izan dute orduetik.

Herritarrek etengabe adierazi dute instalazio militar horrekiko arbuioa eta kontraktasuna. 1979an, bere lehen osoko bilkuran, Tuterako Udalak Errege Bardeako tiro poligono horren aurka zegoela adierazi zuen. Zenbait urtetako errepresio latza eta gero, Tiro Poligonoaren aurkako Batzarraren eraketa abiatu zen, Tuterako oposizioko elkarte sindikal, kultural eta sozial eta alderdi politiko guztiek babestuta. Batzarraren eraketa 1987ko azaroan izan zen, eta horrez geroztik tiro poligonoaren aurkako borrokaren erreferentzia izan da. Urtean behin erreibindikazio-ekintza bat antolatzeko saioak izan ziren, militarrei eta politikariei herritarren arbuioa gogorarazteko; eta horiek 1988an Poligonoaren aurkako Martxa ekarri zuten. Orduetik hona, milaka pertsonak lau kilometro egiten dituzte oinez Bardean barrena, tiro poligonoaren instalazioen sarreraraino, base hori desegiteko eskatze aldera.

Bardeako tiroguneako entrenamenduak eta bonbardaketak su errealarekin egiten dira, munduko beste leku batzuetako gerrak simulatuz. Hala zioen Aireko Armadak bere webgunean, "Ekaitz" operazioa zela-eta: "Entrenamendu honek ahalbidetzen du Aireko Armadaren barne-makineria koipeztaturik mantentzea, behar bezain azkar eta behar besteko eraginkortasunez erantzun ahal izan dezan, baldin eta krisi egoera batean Gobernuak Armadaren esku-hartzeari beharrezko baderitzo, iaz Libiako krisiarekin gertatu zen legez".

Hainbat urtean, tirogune hau Estatu Batuetako armadak erabili zuen, aldebiko akordioak tarteko. Estatubatuarrek 1991ra arte egon ziren Bardean eta Zaragozako basean; hots, Espainia NATO sartzeko Amerikako Estatu Batuak begirale-zereginetan aritzearen premia desagerrarazi zuen arte. Orduetik aurrera, poligonoa erabili du gerretan inplikaturako NATOko edozein kidek; erabilera hori areagotu egin zen Libiako bonbardaketak, Golkoko gerra, Balkanetako gerra edo Iraken berriki izandako gatazka gertatu aurreko egun eta gauean, edo Livex izeneko ariketa militarren bigarren zatian, zeinetan sartzen diren indar berezien

misioak, lehorreratze anfibioak, paraxutistak eta lurreko ofentsibak.

Gaur egun, Espainiako armadak eta NATOko armadek maniobrak eta bonbardaketak egiten jarraitzen dute, urteroko “Ekaitz” izeneko operazioak barne direla. Operazio horietan benetako armak erabiltzen dira, eta ez da ezaguna zer armarekin esperimentatzen den, ezta ariketa militar horiek zer arrisku izan ditzaketen ere biztanleentzat eta ingurumenarentzat. Ez dago inolako txosten independenteren edo informazioen berririk; ezer ez.

Tiro-poligonoarekin zerikusia zuten dozenaka istripu larri gertatu dira, eta bat baino gehiago izan dira herriguneetan eroritako hegazkinak edo “gal-dutako” bonbak.

Tiro- eta bonbardaketa-poligono hau eraistea beharkizun bat da, oinarri hartzen duena bakea aldezte militarismoaren eta gerraren aurrean, herritarren segurtasuna ziurtatzeko premia, eta natur parke eta munduko biosfera-erreserba gisa babestutako lurralde bateko balio ekologikoen babesa. Gaur egun, gainera, beharrian sozial eta ekonomiko bat ere bada poligonoa ixtea. Krisi ekonomiko ikaragarria bizi dugu, langabezia eta pobrezia tasak jasanezinak dira, eta horregatik da are premiazkoagoa gastu militarren aurrean gastu sozialak lehenestea.

Horregatik guztiagatik, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu.

1. Nafarroako Parlamentuak babestu egiten ditu Bardeako tiro-poligono militarra desegitea defendatzeko eta exijitzeko deitzen diren ekimen eta mobilizazio guztiak, hala nola Tiro Poligonoaren aurkako Batzarrak datorren ekainaren 5erako antolatu duen martxa, Bardeako tiro-poligonoa desegitearen aldekoa.

2. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Estatu-Gobernua premiatzen du:

– Bertan behera utz ditzan Espainiako armadak eta NATOko zenbait armadak Bardean egiten dituzten maniobra militarrek eta bonbardaketak, “Ekaitz” izeneko operazioak barne direla.

– Berehala desegin dezan Bardeako tiro-poligonoa.

– Erabaki dezala Espainiako Estatuak NATOtik ateratzea eta atzeritar base militarrek erretiratzea.

– Aurrekontu militarrek drastikoki murriztu ditzan eta arma-salmentaren gaineko kontrol zorrotza egin dezan, giza eskubideak urratzen dituzten herrialdeekin kontraturik ez dadin sina.

Iruñean, 2016ko apirilaren 28an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da aintzat har eta abian jar dezan “Helburua: batere lan istripurik ez” izeneko plan bat.**

### *CARLOS COUSO CHAMARRO JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Couso Chamorro jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita aintzat har eta abian jar dezan “Helburua: batere lan istripurik ez” izeneko plan bat.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza



## MOZIOAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Carlos Couso Chamarro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

2015a urte okerrenetako bat izan omen da laneko istripuen kopuruari dagokionez: ez da lortu istripu hilgarriak gutxitzea eta lan-istripuen kopurua nabarmen handitu da. Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak 2015eko urtarriletik irailera bitartean metatu dituen datuek adierazten dutenaren arabera, urtean 9 istripu hilgarri, 44 istripu larri eta 5.602 istripu arin egon dira. Badirudi azken hiruhilekoak kezka bera edo are handiagoa sortzen duten zifrak ekarriko dizkiela 2015eko datu metatuei.

Hala eta guztiz ere, Espainiako Gobernuaren gaurdainoko politikak krisitik ateratzeko heldu dion bide kaskarra da kolokako enpleguarena, lansari txikiena eta hainbat desberdinkeria: emakumeengan eragin negatiboa duten genero-desberdinkeria; adin desberdinkeriek eragin negatiboa daukate gazteengan eta 45 urtetik gorakoengan; eta, amaitzeko, herritartasun-desberdinkeriek etorkinak diskriminatzen dituzte. Langile-klasearen ezegonkortasun eta prekaritate horiek dira gaur egungo istripu-tasa handiaren eragile.

### Erabaki proposamena

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du aintzat har eta abian jar dezan "Helburua: batere lan istripurik ez" izeneko plan bat, enpresak bultzatuko dituen lan-istripuak gutxitzeko edo desagerrarazteko helburua daukaten neurriak ezartzera. Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak sustatu behar du plan hori, eta honako hauek bilduko ditu bere jarduketan artean:

a. Txosten bat prestatzea, laneko arriskuen prebentzioaren arloko legedia Nafarroako enpresa eta lantoki guztietan modu formalean ez ezik materialki eta eraginkortasunez ere betetzeari buruzkoa.

b. Enpresek, sindikatuek, langileek eta edozein interesdunek laneko arriskuen prebentzioaren arloko legedia eraginkortasunez aplikatzea lortze aldera egiten dituzten proposamenak biltzea.

c. Laneko arriskuen aurkako babesa hobetu eta handitzen duten gomendioak eta proposamenak egitea.

d. Aplikatu beharreko araudiaren hitzez-hitzekotasuna betetzeaz gain, c) puntuan adierazitakoaren arabera laneko arriskuen prebentzioaren arloko berariazko legedia hobetzeko bide gisa aurkezten diren gomendioak eta proposamenak aplikatzen dituzten enpresak eta lantokiak aitortzea.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du Lan Ikuskatzaileen Kidegoa behar beste baliabide tekniko eta giza baliabidez horni dezan, zerbitzua eraginkorragoa izan dadin eta halatan kontrol handiagoa egin dadin istriputasaren jatorrian dauden laneko baldintza-narriadurako egoeren gainean.

3. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernu premiatzen du Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetzaren Sistema antolatzen duen uztailaren 21eko 23/2015 Legearen III. tituluko III. kapitulua alda dezan, Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetzako agintari autonomikoek (teknikariak) eskumen gehiago izan dezaten: exekutiboak, laneko arriskuen prebentzioaren arloko espedienteak ofizios sustatzekoak, eta aplikatu beharreko araudiaren urraketak salatzeakoak.

Iruñean, 2016ko apirilaren 28an

Foru parlamentaria: Carlos Couso Chamarro

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zenbait ekin-tza egin ditzan gizarte-zerbitzuen kalitatea hobetzeko.**

### *NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita zenbait ekin-tza egin ditzan gizarte-zerbitzuen kalitatea hobetzeko.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Eskubide Sozialetako Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeko eledun María Chivite Navascués andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

Administratziotik eskaintzen diren prestazioen eta zerbitzuen etengabeko hobekuntzako elementua den aldetik kalitatea kudeaketa publikoan txertatzeko, beharrezko gertatzen da zerbitzu publikoak kudeatzeko eredu zehatz bat ezartzea.

Nafarroako Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legearen VIII. titulua gizarte zerbitzuen kalitateari buruzkoa da, eta hori hobetzeko neurri batzuk ezartzen ditu; besteak beste, nabarmendu behar da Nafarroako Gobernuak lau urtean behin kalitate plana egin beharra.

Agindu hori betetzeko, gizarte zerbitzuen arloan eskumena zeukan departamentuak I. Kalitate Plana (2010-2013) prestatu zuen. Gaur egun, ez da egin horren betetze-mailari buruz egin beharrezko ebaluazioa.

Asmoa zen plan horren bidez eraginkortasunik handienaz aurre egitea eskubide-bermerako sistema berriak zekartzan erronkei, bai eta zerbitzu eta esku-hartze arlo guztietan gutxieneko kalitate-maila bat bermatzea ere, gizarte zerbitzuen ere-

muan etengabeko hobekuntzaren kultura sustatuta.

Plan horren helburua etengabe zerbitzu hobekak bilatzea zen, bereziki pertsona ahulenen eta haien familien bizi-kalitatea hobetzeko asmoz. Bertan sektoreko langileentzako prestakuntza plan bat ere zehazten zen.

Dena den, ebaluatu, berrikusi eta –zenbait kasutan– aplikatu ez denez, ez dago argi zein den gizarte zerbitzuen kalitatearen etengabeko bilaketari administrazio publikoek gaurdaino eman dioten benetako garrantzia.

Alderdi Sozialistan uste dugu gizarte zerbitzuen laguntzaren kalitatea, erantzukizun publikoa eta erabiltzaileen eskubidea dela. Horrenbestez, Gizarte Zerbitzuen sistema publikoaren lehentasunezko helburu eta betebeharra behar du izan.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. 209/1991 Foru Dekretua alda dezan, gaur egungo kalitate-eskakizunen arabera.

2. 2010-2013 aldirako I. Kalitate Planaren ebaluazioa 2016a amaitu baino lehen egin dadin.

3. Gizarte zerbitzuen egoerari buruzko diagnostikoa egin dezan eta bigarren Kalitate Plana 2018a baino lehenago prestatu dezan. Plan horrek honako eduki hauek bilduko ditu, gutxienez:

– Zerbitzu-eredu berritzaileen ikerketa eta ezarpena.

– Eskubide Sozialetako Departamentuarenak diren zerbitzuak hitzartzeko orduan gutxieneko baldintza teknikoak eta lan arlokoak ezartzea.

– Langileentzako prestakuntza plana

– Lana bateragarri egiteko neurriak

– Erabiltzaileen eta familien parte-hartze handiagoa

– Zaintzaile informalak babesteko eta trebatzeko neurriak

4. Gizarte Zerbitzuen Zorroan aipatutako zerbitzu ezberdinetarako protokoloak, erregistroak eta programak zehatz ditzan, lehentasuna emanda egoitza-izaerako zerbitzu bermatuei, nahitaez

bete beharrekoak zerbitzu publikoentzat eta postu itunduentzat.

5. "El Vergel" zahar-etxeak zentro-kudeaketako proiektu bat presta dezan, beste zahar-etxe batzuetarako kudeaketa-eredu izanen dena. Kudeaketa eredu hori kalitatean oinarritu behar da, eta pertsona bakoitzaren beharrianak eta nahiak hartu behar ditu aintzat.

6. Adimen-desgaitasuna duten helduak artatzen dituen San José egoitzak zentro-kudeaketako proiektu bat presta dezan, Schalock-en kalitate ereduan oinarritzen dena.

Iruñean, 2016ko apirilaren 28an

Eleduna: María Chivite Navascués

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua premiatzen da Haur Hezkuntzako lehen mailako bigarren unitate bat ezar dezan berehala Tuterako Monte San Julián Ikastetxe Publikoan.**

### *UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK ETA NAFARROAKO ALDERDI POPULARREKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DUTE*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeak eta Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua premiatzen baita Haur Hezkuntzako lehen mailako bigarren unitate bat ezar dezan berehala Tuterako Monte San Julián Ikastetxe Publikoan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Hezkuntza Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

#### **MOZIOAREN TESTUA**

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkezten dute, Hezkuntza Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da Haur Hezkuntzako lehen mailako bigarren unitate bat ezar dezan berehala Tuterako Monte San Julián ikastetxe publikoan.

Orain dela aste batzuk, martxoan, hain zuzen, Tuterako Monte San Julián ikastetxe publikoko

gurasoen elkarteak bere haserrea agertu zuen Haur Hezkuntzako lehen mailako unitate bat kendu zela-eta. Hezkuntza Departamentuaren erabakiaren ondorioz, hiru familia ikastetxetik kanpo geratu ziren.

Hezkuntza Departamentuak unitatea kentzeko erabakiaren berri eman zion ikastetxeari, gurasoak haserre bazeuden ere. Izan ere, gurasoek kritikatu egin zuten ikaspostu-kopurua aldatzea erabaki izana justu aurreinskripzioak aurkezteko epea amaitzen ari zenean.

Hezkuntza Departamentuak berak aitortu du 2015-2016 ikasturtean 32 ikasleko matrikulagehikuntza gertatu zela, aurreinskripzio-prozesutik berandu eskolatzeagatik matrikulaziora bitartean (19 ez ziren matrikulatu ohiko aldian, eta 13 ikasle berri sartu ziren). Une honetan, ikasleei kokapen berria eman ondoren, 13 ikaspostu baino ez dago.

Horregatik guztiagatik, ezin da irailera arte itxaron Monte San Julián ikastetxe publikoan bigarren lerroa ezartzeko erabakia hartzeko, plantillak maiatzean dagoeneko ezarrita egonda.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua premiatzen du Haur Hezkuntzako lehen mailako bigarren unitate bat ezar dezan berehala Tuterako Monte San Julián ikastetxe publikoan.

Iruñean, 2016ko apirilaren 28an

Foru parlamentariak: Alberto Catalán Higuera eta Javier García Jiménez

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua eta Ebroko Konfederazio Hidrografikoa premiatzen dira eman beharreko baimenak eman ditzaten eta Ebro ibaiaren ibilgua garbitu dezaten.**

### *LANDA GARAPENeko, INGURUMENeko ETA TOKI ADMINISTRAZIoko BATZORDEAN IZAPI-DETZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

**1.** Xedatzea Landa Garapeneko, Ingurumene-ko eta Toki Administrazio-ko Batzordean izapidetu dadin Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua eta Ebroko Konfederazio Hidrografikoa premiatzen baitira eman beharreko

baimenak eman ditzaten eta Ebro ibaiaren ibilgua garbitu dezaten. Mozioa 2016ko apirilaren 22ko 56. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

**2.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

---

## **Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak arbuiatzen baititu apirilaren 28ko istiluetan NUPeko errektorearen aurka izandako irainak.**

### *ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

2016ko maiatzaren 2an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak bere arbuiorik erabatekoena adierazten du NUPeko errektorearen aurka izandako irainak direla eta”

Iruñean, 2016ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

---

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, lanpostu-eskaintza publikoetan herritarren hizkuntza eskubideak bermatze aldera ezarri beharreko irizpideei buruzkoa.**

*DABID ANAUT PEÑA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Dabid Anaut Peña jaunak aurkeztutako galdera, lanpostu-eskaintza publikoetan herritarren hizkuntza eskubideak bermatze aldera ezarri beharreko irizpideei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**GALDERAREN TESTUA**

Dabid Anaut Peña, EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko parlamentaria denak, Legebiltzarraren Erregelamenduari jarraikiz, ondoko ahozko galdera egin nahi du, Osoko Bilkuran Nafarroako Gobernuak erantzun dezan.

Nafarroako Gobernuak sostengatzen duten lau indar politikoei sinatutako programa-akordioak honako konpromisoak jasotzen ditu, besteak beste, hizkuntza-politikaren atalean:

– Arauzko esparru egoki bat garatzea, herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeko.

– Administrazioaren esparruan herritarrei ahal bezainbat euskaraz erantzuten saiatzeko konpromisoa hartzea, haien hizkuntza-eskubideak bermatzeko, eta, horretarako, langileen diagnostikoa egitea eta ele biko ibilbideak prestatzea.

Arauzko esparruari dagokionez, eta Euskarabideko Zuzendariak azaldu izan duen moduan, Nafarroako Gobernuak administrazioan euskararen erabilera arautzeko dekretu berrirako zirriborroa osatzen ari da, dagokion prozeduraren ondoren onartua izan dadin. Dekretua onartu bitartean, bestalde, gerta liteke –eta gertatzen ari da– Foru Administrazioak berak deialdiren bat egitea; Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazio Departamentuan edo Osasun Departamentuan, esate baterako.

Horrenbestez, kontuan izanda balitekeela dekretu berria argitaratu baino lehenago lanpostu deialdi publikoak egitea, eta kontuan izanda programa-akordioan hizkuntza eskubideak bermatzeko konpromisoa hartu dela.

Euskararen erabilera arautzeko dekretu berria argitaratu bitartean, zer egiten ari da eta zer egingen du Nafarroako Gobernuak administrazio publikoaren alorrean herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko; eta, zehazki, zein irizpide ezarriko du egin litezkeen lanpostu eskaintza publikoetan, hizkuntza eskubide horiek bermatzeko?

Iruñean, 2016ko apirilaren 26an

Foru parlamentaria: Dabid Anaut Peña

## **Galdera, Echauri Forestal-en finkaren kudeaketa planari buruzkoa.**

*RUBÉN VELASCO FRAILE JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Rubén Velasco Fraile jaunak aurkeztutako galdera, Echauri Forestal-en finkaren kudeaketa planari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Rubén Velasco Fraile jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xeda-

tuarekin bat, galdera hau aurkezten du, hurrengo Osoko Bilkuran Landa Garapeneko, Ingurumene-ko eta Toki Administrazio-ko kontseilariak ahoz erantzun dezan. ·

Landa Garapeneko, Ingurumene-ko eta Toki Administrazio-ko Batzordea 2014ko maiatzaren 30ean bisitan joan zen Etxauriko finkara (Echauri Forestal). Une hartan Mendi Zerbitzuko zuzendaria zen Fermin Olabe jauna aritu zen bisitan Batzordearen gidari, eta berak adierazi zuenez, "finkarako kudeaketa plan baten zain" zeuden.

Landa Garapeneko, Ingurumene-ko eta Toki Administrazio-ko Departamentuak Echauri Forestal finkarako kudeaketa planik prestatu al du? Kasu horretan, zeintzuk lirateke kudeaketa plan horren ildo nagusiak eta planteamendua?

Iruñean, 2016ko apirilaren 28an

Foru parlamentaria: Rubén Velasco Fraile

## **Galdera, ikasleek Nafarroako Unibertsitate Publikoan apirilaren 28an egindako mobilizazio baketsuaren aurrean Foruzaingoak eginiko jarduketari buruzkoa.**

*ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamari-que jaunak aurkeztutako galdera, ikasleek Nafarroako Unibertsitate Publikoan apirilaren 28an egindako mobilizazio baketsuaren aurrean Foruzaingoak eginiko jarduketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Adolfo Araiz Flamari-que jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Gaur, apirilak 28, mobilizazio baketsu bat izan da NUPen, gaur goizean onetsi behar zen hezkuntza-erreformaren aurkako protesten ingurugiroan. Dirudenez, sarreran elkarretaratze bat egin da, Gobernu Kontseiluaren osoko bilkura era sinbolikoan eragotzi nahian, baina langileei sartzan utziz.

Mobilizazio hori abian egonda, NUPeko segurtasun zerbitzuek ikasleak aterarazteko ahalegina

egin dute, baina elkarretaratzeak bere horretan iraun duenez, Errektoretzatik Foruzaingoarengana jo dute eta, dirudienez, agenteak bortizki oldartu dira ikasleen aurka, ondorioz zenbait ikasle zauriturik gertatuta, eta haietako bi atxilotuta.

Ikasleen elkarretaratze baketsu baten aurrean proportziorik gabekotzat jo daitekeen jarduketa

hori dela eta, jakin nahi genituzke jarduketa horren zergatiak, eta zein den Gobernuak horiei buruz eginiko balorazioa.

Iruñean, 2016ko apirilaren 28an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

## **Galdera, NUPen 2016ko apirilaren 28an gertatutakoari buruzkoa.**

*CARLOS GARCÍA ADANERO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos García Adanero jaunak aurkeztutako galdera, NUPen 2016ko apirilaren 28an gertatutakoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

UPN-Unión del Pueblo Navarro parlamentu taldeari atxikitako eta Nafarroako Gorteetako kide Carlos García Adanero jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako kontseilari Ana Olló andreak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer iritzi duzu gaur, apirilak 28, NUPen gertatutakoari buruz?

Iruñean, 2016ko apirilaren 28an.

Foru parlamentaria: Carlos García Adanero

## **Galdera, indarrean diren udalez gaindiko plan sektoriale buruzkoa.**

*DABID ANAUT PEÑA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Dabid Anaut Peña jaunak aurkeztutako galdera, indarrean diren udalez gaindiko plan sektoriale buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Dabid Anaut Peña, EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamenduak adierazten duen bezala, ondoko Galdera idatzia egiten dio Nafarroako Gobernuari:

Nafarroako Gobernua sostengatzen duten lau indar politikoek sinatutako akordio-programak honela dio pasarte batean:

16. *Aipatutako udalez gaindiko plan sektoriale dagokienez, udalaz gaindikotzat zer hartzen den azter dadin bultzatzea, udal-eremua gainditzen ez duten proiektuek kontzeptua ez gaiztotzeko. Alde horretatik, 35/2002 Foru Legea aldatzea bultzatuko da, Lurraldearen antolamenduari eta hirigintzari buruzkoa (zehazki, 42. artikulua), uda-*

*lez gaindiko plan eta proiektuen definizioa zehazteko eta, horrela, "Nafarroako toki-entitateek hirigintza-arloan dituzten eskumenetan sartzen ez den heinean, lurraldea egituratzen" laguntzen duen tresna bat "babesteko".*

Zenbat UGPS daude gaur egun indarrean

Nafarroan? Eta zer lan edo urrats egiten ari da Nafarroako Gobernua, programa-akordioak dioena betetzeko?

Iruñean, 2016ko apirilaren 26an

Foru parlamentaria: Dabid Anaut Peña

---

## **Galdera, Bideko Ama Birjina Ospitaleko Pediatriako Zainketa Intentsiboen Unitateari buruzkoa.**

*BEGOÑA GANUZA BERNAOLA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Begoña Ganuza Bernaola andreak aurkeztutako galdera, Bideko Ama Birjina Ospitaleko Pediatriako Zainketa Intentsiboen Unitateari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeari atxikia dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Begoña Ganuza Bernaola andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Osasuneko kontseilariak idatziz erantzun diezaion:

Zer plan du Osasun Departamentuak Bideko Ama Birjina Ospitaleko Pediatriako Zainketa Intentsiboen Unitatearen zerbitzua hobetzeko?

Iruñean, 2016ko apirilaren 26an

Foru parlamentaria: Begoña Ganuza Bernaola

---



## **Galdera, Nafarroako Ingelesez Ikasteko Programaren diagnostikorako azterlan soziologikoaren kostuari buruzkoa.**

*ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Ingelesez Ikasteko Programaren diagnostikorako azterlan soziologikoaren kostuari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentaltaldeko eta Nafarroako Gorteetako kide Alberto

Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dakion:

Hezkuntzako kontseilariak apirilaren 26an egindako agerraldian, zeinean azalpenak eman baitzituen Ingelesez Ikasteko Programa zela-eta diagnostikoa egite aldera departamentuak kontraturiko azterlan soziologikoaz, ez zitzaion erantzun horren kostuari buruz egindako galderari.

Hori guztia dela-eta, honako galdera honi idatziz erantzutea nahi dugu:

Zein izan da Nafarroako Ingelesez Ikasteko Programaren diagnostikorako azterlan soziologikoa egiteak Hezkuntza Departamentuari ekarritako kostu gehakia?

Corellan, 2016ko apirilaren 27an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

## **Galdera, Cascanteko osasun etxeari buruzkoa.**

*ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Cascanteko osasun etxeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentaltaldeari atxikia dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkeztu ditu, idatziz erantzun dakizkion:

– Osasun Departamentuak asmorik al dauka Cascanteko Osasun Etxean birmoldaketa, lan edo egokitzapenik egiteko? Baiezkoan, nolako jarduketak egin nahi du?

– Osasun Departamentuaren ustez, osasun etxe horretan irisgarritasuna hobetzerik ba al dago?

– Zer mantentze-lan egin dira azken hilabeteotan?

Corellan, 2016ko apirilaren 27an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

## **Galdera, atzerriko hizkuntzako hamabi ordu baino gehiago ematen dituzten Bigarren Hezkuntzako ikastetxeei buruzkoa.**

*ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, atzerriko hizkuntzako hamabi ordu baino gehiago ematen dituzten Bigarren Hezkuntzako ikastetxeei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeko eta Nafarroako Gorteetako kide Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan eta hurrengoetan

ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Hezkuntzako kontseilariak, apirilaren 26an egindako Hezkuntza Batzordeko agerraldian, Bigarren Hezkuntza Eleanitzeko ikastetxeetarako araudiaren gaineko aurreikuspenen berri eman zuen.

Horren arabera, atzerriko hizkuntzetako gehieneko ordu kopurua 12koa izanen zen.

Hori dela eta, galdetu zitzaien zer gertatu behar zen 12 ordu horiek baino gehiago ematen ari diren ikastetxeekin. Aipatu batzordean erantzunik eman ez baitzen, honako galdera hau aurkezten da, idatziz erantzun dakion:

– Zer asmo du departamentuak gaur egun atzerriko hizkuntzako 12 ordu baino gehiago ematen dituzten Bigarren Hezkuntzako ikastetxeei dagokienez?

– Ezarri nahi den araudian zehazten diren mugek nolako eragina izanen dute ikastetxe horietan?

Corellan, 2016ko apirilaren 27an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

## **Galdera, Nafarroako Gobernuak departamentu bakoitzean dituen aztermahaien eta foroen kopuruari buruzkoa.**

*ANA SAN MARTÍN ANIZ ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ana San Martín Aniz andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuak departamentu bakoitzean dituen aztermahaien eta foroen kopuruari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeari atxikia dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Ana San Martín andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Zenbat aztermahai eta foro ditu Nafarroako Gobernuak departamentu bakoitzean?

Iruñean, 2016ko apirilaren 27an

Foru parlamentaria: Ana San Martín

## **Galdera, Nafarroako Gobernuak departamentu bakoitzean ezarri dituen aztermahaien eta foroen kostuari buruzkoa.**

*ANA SAN MARTÍN ANIZ ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ana San Martín Aniz andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuak departamentu bakoitzean ezarri dituen aztermahaien eta foroen kostuari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeari atxikia dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Ana San Martín andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Zein da Nafarroako Gobernuak departamentu bakoitzean ezarritako aztermahai eta foro bakoitzaren kostua?

Iruñean, 2016ko apirilaren 28an

Foru parlamentaria: Ana San Martín

## **Galdera, Fiteroko monasterioan 2016an egin beharreko jarduketei buruzkoa.**

*ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Fiteroko monasterioan 2016an egin beharreko jarduketei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeko eta Nafarroako Gorteetako kide Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Hezkuntza Departamentuak honako hau adierazi zuen 2016ko otsailean Foru parlamentari

honen informazio-eskari bati erantzutean, Nafarroako ondare historiko-artistikoa zaharbertzeko egin gogo zituen jarduketekin zerikusia zuten beste gai batzuekin batera:

Jarduketak beste eraikin historiko-artistiko batzuetan (A2001 A2110 7819 377100 kontusaila. Eraikin historiko-artistikoa zaharbertzea eta babestea. 2.341.000 euroko zuzkidura du).

Fiteroko monasterioaren klaustroaren zaharbertzea finkatzea. Aurreikusitako aurrekontua 720.000 eurokoa da; lanak 2016ko abenduan bukatuko dira.

Horregatik guztiagatik, honako galdera hauek egin dizkiogu Kultura Departamentuari, 2016an Fiteroko monasterioan egin beharreko jarduketei buruz:

- Zer lan zehatz egingen dira?
- Lanak esleitu al dira?
- Zein enpresari esleitu zaizkio lanak?
- Zein izan da esleipenaren aurrekontua?
- Noiz hasiko dira lanak?
- Lanak bukatzeko epe zehatzik bai?

Corellan, 2016ko apirilaren 28an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

## **Galdera, Tuterako Magdalena elizan 2016an egin beharreko jarduketei buruzkoa.**

*ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Tuterako Magdalena elizan 2016an egin beharreko jarduketei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**GALDERAREN TESTUA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentualdeko eta Nafarroako Gorteetako kide Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dakion:

Foru parlamentari honen informazio-eskari bati erantzuteko, Kultura Departamentuak, 2016ko otsailean, Nafarroako ondare historiko-artistikoa zaharberritzeko egin asmo zituen jarduketekin lotutako beste gai batzuekin batera, honako hau adierazi zuen:

Jarduketak beste eraikin historiko-artistiko batzuetan (A2001 A2110 7819 377100 kontusaila). Eraikin historiko-artistikoak zaharberritzea eta babestea. 2.341.000 euroko zuzkidura du).

Tuterako Magdalena elizako portada; proiektua egiteko dago; aurreikusitako gastua 100.000 euro

inguru; esku-hartzea aurrekontu-ekitaldi honetan bukatuko da.

Horregatik guztiagatik, honako galdera hauek egin dizkiogu Kultura Departamentuari, 2016an Tuterako Magdalena elizan egin beharreko jarduketari buruz:

– Proiektua idatzi al da? Hala ez bada, noizko aurreikusten da hori bukatzea?

– Zer lan zehatz egingen dira?

– Lanak esleitu al dira?

– Zein enpresari esleitu zaizkio lanak?

– Zein izan da esleipenaren aurrekontua?

– Noiz hasiko dira lanak?

– Lanak bukatzeko epe zehatzik bai?

Corellan, 2016ko apirilaren 28an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

**Galdera, urtarrilean PFEZaren bidezko diru-bilketa igo izanari buruzkoa.****GALDERA ERRETIRATZEA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela María Fátima Andreo Vázquez andreak aurkezturiko galdera erretiratu izanari dagokionez. Galdera urtarrilean PFEZaren bidezko diru-bilketa igo izanari

buruzkoa zen, eta 2016ko martxoaren 15eko 36. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **Arauk, Nafarroako Parlamentuak izendatzekoak diren Nafarroako Kutxa Fundazioaren Patronatuko hiru kideak hautatzeari buruzkoak.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 2an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Kutxa Fundazioaren Estatutuen 11. artikuluari jarraikiz, Nafarroako Parlamentuari dagokio haren Patronatua osatzen duten bederatzikideetatik hiru izendatzea, enpresa, sindikatu eta unibertsitate arloan lanbideko ospe handia duten pertsonen artean hautatuak.

Legebiltzarreko Erregelamenduan ez da ezer aurreikusten izendapen hori egiteko; beraz, Erregelamendu horren 37.1.9 artikuluan ezarritakoaren babesean, bidezkoa da Mahaiak arauak onestea, Eledunen Batzarrak erabakia hartu ondoren, Nafarroako Kutxa Fundazioaren Patronatua Nafarroako Parlamentuak izendatu behar dituen hiru kideen hautapena taxutzeko.

Horretarako, Legebiltzarreko legelari nagusiak arau-proposamen bat prestatu du, Estatutueta jasotzen diren aurreikuspenekin bat.

Hori horrela, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 37.1. Bederatzigarrena artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrarekin adostu ondoren, hona ERABAKIA:

**Lehena.-** Nafarroako Parlamentuak izendatzekoak diren Nafarroako Kutxa Fundazioaren Patronatuko hiru kideak hautatzeko prozesua hastea.

**Bigarrena.-** Ondotik datozen arauak onestea:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Kutxa Fundazioaren Patronatuko hiru kide hautatuko ditu, Nafarroako enpresa, sindikatu eta unibertsitate arloan lanbideko ospe handia duten pertsonen artean.

2. Hautagaiek honako baldintza guztiak beteko dituzte:

a) Pertsona fisikoa izatea eta Nafarroako Foru Komunitatean izatea ohiko bizitokia.

b) Adinez nagusia izatea eta ez egotea ezgaitua.

c) Desgaitua ez egotea kargu edo eginkizun publikoak betetzeko edo ondasunak administratzeko.

d) Merkataritza eta lanbide arloko ohorearen gaineko baldintzak betetzea eta Patronatuaren berezko eginkizunekin bat datozen prestakuntza eta esperientzia izatea; bai eta, zer sektoretatik suertatzen diren hautatuak, horri dagozkionak.

e) Hurrengo arauan jasotzen den debeku edo bateraezintasunetakoren baten aplikaziopean sarturik ez egotea.

3. Ezin izanen dira Patronatuko kide gisa hautatu ondoko egoeretan dauden pertsonak:

a) Desgaituak izan diren konkurtsopokoak, desgaitasun-aldia amaitu ez den bitartean.

b) Kargu publikoetan jarduteko desgaitasun orokor edo berezia dakarren zigor batera kondenatutakoak.

c) Administrazio publikoen zerbitzuko langileak, fundazioei dagozkien jarduerekin zuzeneko zerikusia duten eginkizunak baldin badituzte.

d) Kargurako hautatuak izan direnean edo karguko jardunean dirauten bitartean Fundazioarekin edonolako zor mugaeguneratu eta exijigarriak dituztenak.

e) Fundazioari eginiko edozein erreklamazio judizial mantentzen dutenak, salbu eta lan-arloko erreklamazioak direnean edo Patronatuko kideek beren karguetako jardunari dagokionez egindakoak direnean.

f) Lau merkataritza-sozietate edo entitate korporatibo baino gehiagotako administrazio kontseiluetako edo horren baliokide diren organoetako kide direnak. Salbuesten dira Fundazioaren ordezkari bezala edo hark hautaturik betetzen diren karguak.

g) Lotura daukatenak Fundazioarekin edo Fundazioak kapitalaren ehuneko hogei baino gehiagorekin parte hartzen dueneko sozietateekin, edo partaidetutako banku-entitatearekin, tartean obra-, zerbitzu- edo hornidura-kontratu bat nahiz ordainpeko lanerako kontratu bat dagoela. Bateriaezintasun hori halaber helduko da ezkontide eta horien parekoengana, eta halako sozietateetara non patronatu-kideak, zuzenean edo zeharka, ehuneko hogei baino gehiagoko partaidetza duen, berak bakarrik edo bere ezkontidearekin, aurreko nahiz ondoko ahaideekin batera, edo lehendakari, kontseilari delegatu edo horien pareko karguak betetzen dituztenekoetara.

h) Patronatu-kide, lehendakari, kontseilari, administratzaile, zuzendari, kudeatzaile, aholkulari edo horien pareko kargua edo postua betetzen dutenak Fundazioaren banku-entitate partaidetuan, banku-talde partaidetuak kontrolaturiko beste entitate batzuetan edo izaera bereziko nahiz banku-izaerako beste fundazio batean.

i) Europar Batasun, Estatu, autonomia erkidego, Nafarroako Foru Komunitate eta toki entitateetako erakundeetan edozein kargu politiko hautesitan dihardutenak.

j) Goi kargu bat daukatenak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan, Estatuko Administrazio Orokorrean edo Toki Administrazioan, edo haiekin loturikoak nahiz haien menpekoak diren sektore publikoko entitateetako edozeinetan, zuzenbide publikoko nahiz pribatuko entitatea dela ere.

k) Alderdi politiko, enpresaburu-elkarte edo sindikatu batean kargu exekutibo edo zuzendari-tzakoa daukatenak.

Arau honetako g), i), j) eta k) letretan adierazitako bateraezintasunak mantendu egingen dira kasuko lotura edo zerrendaturiko karguetako edozeinetako kargudun-izaera bertan behera gelditzen den egunaren ondoko bi urteetan.

4. Parlamentu-taldeek eta foru parlamentarien elkarteek gehienez hiru hautagai aurkeztu ahalko dituzte; horietatik bi, sexu batekoak izanen dira, eta bat, beste sexukoa.

Hautagaitzak aurkezteko, parlamentu-taldeek Legebiltzarreko Mahaiari idazki bat helaraziko diote, non jasota ageriko baita proposatutako hautagaien onarpena, bai eta Fundazioaren estatutuetan ezarritako baldintzen betetzeari buruzko adierazpena ere.

Parlamentu-taldeek eta foru parlamentarien elkarteek Patronatuko kide izateko hautagaiak aurkezteko epea 2016ko maiatzaren 12ko 19:00etan bukatuko da.

Hautagaitzak aurkezteko epea bukatuta, Mahaiak hautagaitzak kalifikatu eta aldarrikatuko ditu.

5. Patronatuko hiru kideen hautaketa Legebiltzarren Osoko Bilkuran egingen da, isilpeko bozketaren bidez.

Txartelen bidez egingen da bozketa, eta zenbat postu bete behar diren, horrenbeste izen jarri ahalko ditu txartelean parlamentari bakoitzak.

Mahaiak boto-kontaketa egingen du, eta boto gehien eskuratu dituzten hiru hautagaiak hautatu direla aldarrikatuko du.

6. Hautaketan eragina izan dezaketen balizko berdinketak ebatziko dira boto kopuru bera lortu duten hautagaien arteko bigarren bozketa baten bidez. Berdinketak bere horretan badirau, boto-kopuru bera duten hautagaien arteko hirugarren bozketa bat egingen da; eta berriro ere berdinketa gertatuz gero, hautaketa-prozedura amaitu dela deklaratu da eta prozedura berri bati ekingen zaio, hautatzeke gelditu diren postu hutsetarako.

**Hirugarrena.-** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## **Lantaldea, gure gizarteko mugikortasun-beharrizanak eta, bereziki, Nafarroako garraio-beharrizanak aztertzea.**

### *BARNE-FUNTZIONAMENDURAKO ARAUAK ALDATZEA*

Legebiltzarreko Erregelamenduaren 114. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin arau-aldaketa, Gure gizarteko mugikortasun-beharrizanak eta, bereziki, Nafarroako garraio-beharrizanak aztertzeko Lantaldearen barne-funtzionamenduari buruzko araei dagokiena, zeina 2016ko maiatzaren 2an eginiko bilkuran onetsi baitzuen lantaldeak. Hona testua:

“**Bosgarrena bis.** Lantaldearen kideen gehien-goak hala erabakitzen badu, lantaldeak agerraldietarako egiten dituen bilerak irekiak izanen dira hedabideentzat, eta ikus-entzunezko bitartekoak erabiliz erretransmititu ahalko dira. Pertsona edo entitate pribatuen kasuan, haiei galdetu beharko zaie ea agerraldia egitea eta baita haien min-

tzaldia publikoa egitea ere onartzen duten. Bilera hauek lantaldeko lehendakariaren zuzendaritzapean egingen dira. Hark, bilera-eskatzailearen mintzaldiaren ondoren, agerraldia egin behar duenari emanen dio hitza, agerraldiaren xede den informazioa azal dezan, gehienez ere hogeita hamar minutuz. Ondoren, lantaldeko kideek izanen dute hitza, galderak egin edo haien jarrera azaltzeko, gehienez ere hamar minutuz. Bilera bukatuko da agerraldia egiten ari denaren erantzunarekin, gehienez ere hamar minutukoa. Partehartzaileraren batek hala eskaturik, lehendakariak galdera edo oharretarako beste txanda bat ireki ahalko du; bost minutu izanen dira horiek egiteko.”

Iruñean, 2016ko maiatzaren 4an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza